

Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia EUSKADIn **2021**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Lehendakaritza

Trantsizio Sozialaren eta 2030
Agendaren Idazkaritza Nagusia
Gazteria zuzendaritza

Presidencia

Secretaría General de Transición Social
y Agenda 2030
Dirección de Juventud



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Edizioa:

2023ko apirila

Internet:

www.gaztebehatokia.euskadi.eus

Egilea:

Gazteen Euskal Behatokia

Diseinu grafikoa eta maketazioa:

Gazteen Euskal Behatokia

ISSN: 3020 - 819X



Dokumentuaren edizio honetan jasotako edukiak lizentzia honekin argitaratu dira: Aitorpena - Ez-komertziala - Lan eratorririk gabea 4.0
Unported de Creative Commons (informazio gehiago
http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)

Aurkibidea

SARRERA	4
METODOLOGIA	5
1. 18 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTEEN EGOERA EMANTZIPAZIOARI DAGOKIONEZ	7
1.1. Zenbat gazte dauden emantzipatuta	7
1.2. Gazte emantzipatuen bizikidetza erak	8
2. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN ETXEBIZITZEN EDUKITZE-ERREGIMENA ETA ETXEBIZITZAK DAKARREN GASTU EKONOMIKOA	11
2.1. Etxebizitzen edukitze-erregimena	11
2.2. Etxebizitzak hileroko dakarren gastua	14
2.3. Diru-sarreraren eta etxebizitzaren gastatutakoaren arteko erlazioa	15
2.4. Diru-laguntzak eta babestutako etxebizitza	17
3. EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK BIZI DIREN ETXEBIZITZEN ETA INGURUNEAREN EZAUGARRIAK	19
3.1. Emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzaren ezaugarri fisikoak	19
3.2. Emantzipatutako gazteek beren etxebizitzekin sentitzen duten gogobetetasuna	23
3.3. Emantzipatutako gazteak bizi diren ingurunearen edo auzoaren ezaugarriak	23
3.4. Emantzipatutako gazteen bizi diren ingurunearekin edo auzoarekin sentitzen duten gogobetetasuna	25
4. EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEN ETXEBIZITZA-PREMIA	26
4.1. Aurretik beren kontura bizi izanaren eskarmentua	26
4.2. Emantzipatu gabeko gazteen etxebizitza-premia	27
4.3. Etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteen lehentasunak	29
4.4. Etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteen aurreikuspenak, emantzipazioari dagokionez, eta diru-sarrerak baldintzatzailea izatea	31
5. EAE-N ETXEBIZITZA-PREMIA DUTEN EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEN IRITZIAK ETA JARRERAK ETXEBIZITZA ARAZOAREN KONPONBIDEI DAGOKIENEZ	37
5.1. Etxebizitzaren arazoa konpontzeko neurriak	37
5.2. Etxebide	41
6. EMAITZA ESANGURATSUENAK	43
ONDORIOAK	46

SARRERA

Gazteen Euskal Behatokia sortzeko Aginduan zera ezartzen zen: “Gazteriaren Euskal Behatokia baliabide egokia da gazteen egoera eta bilakaera edozein unetan eta ikuspegi guztietatik aztertzeko. Horrela, Euskadin gazteriaz arduratzen diren administrazio publikoen jokabidea ebaluatu ahal izango da; batez ere, erkidegoko administrazioarena”¹.

Gazteen emantzipazioa bultzatzeko 2030erako Euskal Estrategia onartu denean, bereziki egokia da gazteen emantzipazioari eta etxebizitza-premiari buruzko azterketa egitea.

Horretarako, 2021eko Etxebizitza Beharrei eta Eskareri buruzko Inkestaren emaitzetan oinarritu gara. Inkesta hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estatistika Organo Espezifikoak egiten du aldizka, eta Gazteen Euskal Behatokiari 18-34 urteko pertsonei buruzko datuak eman dizkio, Behatokiak aztertzeko eta txosten hau idatzi ahal izateko.

Txosten honetan, datu orokorrak aztertzen dira, hala nola emantzipatutako pertsonen ehunekoa edo diru-sarrera propioak izatea, baina baita gai zehatz batzuk ere, hala nola emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzaren ezaugarriak, etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteek dituzten zailtasunak edo etxebizitza-politikarekiko dituzten lehentasunak eta iritziak.

Gainera, 2021eko datuak Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkestaren aurreko edizioetako datuekin alderatzen dira, zehazki 2015, 2017 eta 2019an bildutakoekin.

Era berean, alde esanguratsuak daudenean eta emaitzak estatistika-zorroztasunez eskaintzeko moduko lagin zabala dagoenean, datuak sexuaren, adinaren, lurraldearen eta abarren arabera bereizita aurkezten dira.

Txosten honen helburua, beraz, Euskadiko gazteen egoera orokorraren ikuspegia eskaintzea da, emantzipazioari dagokionez eta, zehazkiago, emantzipatu gabeko gazteen etxebizitza-premiari dagokionez.

¹ AGINDUA, 1999ko abenduaren 10ekoa, Kultura sailburuarena, Gazteen Euskal Behatokia sortu eta haren eginkizunak zehazten dituen [linean] Hemen eskuragarri: https://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovj_que_es_2019/es_2890/adjuntos/behatokia_sortzeko_agindua.pdf [Kontsulta: 2023/04/14]

METODOLOGIA

Txosten honetan aztertutako datuak Etxebizitza Beharrei eta Eskaerari buruzko Inkestatik datoz. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estatistika Organo Espezifikokoak bi urtean behin egiten duen etxez etxeko inkesta da hau. Alde batetik, familia-galdetegi bat dago. Bertan, etxeko hainbat kideren egoerari eta bizi diren etxebizitzaren ezaugarriei buruz galdetzen da, eta, bestetik, banakako bi galdetegi daude, bata Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza-premia duten eta diru-sarrera propioak dituzten pertsonentzat eta bestea etxebizitza-premia duten baina diru-sarrera propiorik ez dutenentzat. Horrek aukera ematen du egoera desberdinei buruzko datuak izateko.

Familia-galdetegia betetzeko, gutxienez 4.000 etxekoen lagina egitea ezarri da. Lagina ausaz aukeratu da Eustaten Biztanleen Erregistro Estatistikotik eta Etxebizitzaren Direktoriotik, etapa bateko laginketa estratifikatu baten bidez, lurralde historikoaren eta udalerriaren tainaren arabera (hiriburuak, 20.000 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerriak eta 20.000 biztanle baino gutxiagokoak). Banakako galdetegia betetzeko, familien laginean hautatutako etxeetan bizi diren 18 eta 44 urte bitarteko pertsona guztiak elkarriketatzen dira, bi ezaugarri hauek betetzen badituzte: emantzipatu gabe egon eta etxebizitza-premia izan.

2021eko edizioan, inkestak egiteko aldia 2021eko irailaren 27tik abenduaren 13ra luzatu da. Denbora horretan, 2.071 inkesta egin ziren 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean, honela banatuta: 518 pertsona emantzipatuak dira, eta 1.553 pertsona emantzipatu gabek; horietatik 560k etxebizitza-premia zutela Euskadin adierazi dute.

2.071 pertsonako lagin horri egotz dakioken lagin-akatsa $\pm$ % 2,1ekoa da % 95eko konfiantza-mailarako eta ausazkotasun osoaren kasuan ($p = q = 0,5$). Emantzipatutako gazteen kasuan, laginketa-akatsa $\pm$ % 4,3ra igotzen da, eta emantzipatu gabeko gazteen kasuan $\pm$ % 2,5era ($\pm$ % 4,1 etxebizitza-premia duten gazte emantzipatu gabeen kasuan).

Gainera, 2.071 inkesta horiek honela banatzen dira sexuaren, adinaren eta lurraldearen arabera: 992 emakume eta 1.079 gizon; 1.048 inkestatu 18 eta 24 urte bitartekoak dira, 25 eta 29 urte bitartekoak 547 dira eta 30 eta 34 urte bitartekoak 476; eta, azkenik, 463 inkestatu Araban bizi dira, 835 Bizkaian eta 773 Gipuzkoan.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estatistika Organo Espezifikokoak Gazteen Euskal Behatokiari azter dezan eman dion datu-baseak 18 eta 34 urte bitarteko pertsona horiek galdeketa bakoitzean emandako erantzunak biltzen ditu, bai eta datuak haztatzeko eta milakoetara igotzeko aldagaia ere.

Gazteen Euskal Behatokiak erantzun horiek aztertu ditu eta txosten hau idatzi du. Batzuetan, emaitzak beste estatistika-iturri ofizial batzuetako datuekin alderatu ditu, gazteen egoera Euskadiko biztanleria orokorraren egoerarekin alderatzeko.

Biztanleria gaztea osatzen duten kolektiboen arteko aldeak islatzeko asmoz, datuak sexuaren, adinaren, lurralde historikoaren, nazionalitatearen eta antzeko aldagaien arabera bereizi dira. Hala ere, aldagai horien intersektionalitatearen eragina ezin da aztertu, sortuko liratekeen kategoria bakoitzeko pertsona-kopuruak ez bailuke emaitzen fidagarritasun estatistikoa bermatuko.

Datuen iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren 2021eko Etxebizitza
Beharrei eta Eskaerari buruzko Inkesta

18 eta 34 urte bitarteko pertsonen egindako inkesta kopurua: 2.071 (518 emantzipatuak
eta 1.553 emantzipatu gabeak)

Inkestak egin diren aldia: 2021eko irailaren 27tik abenduaren 13ra arte

Datuak aztertzea eta txostena idaztea: Gazteen Euskal Behatokia

1. 18 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTEEN EGOERA EMANTZIPAZIOARI DAGOKIONEZ

1.1. Zenbat gazte dauden emantzipatuta

2021eko Etxebizitza Beharrei eta Eskaerari buruzko Inkestan jasotako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko 18 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren % 35,0 emantzipatuta dago. Pertsona emantzipatutzat hartzen dira etxebizitzaren titularrak direnak edo, titular ez badira, gurasoekin edo beste senide batzuekin (neba-arrebak, aitona-amonak, osaba-izebak) bizi ez direla diotenak².


Adin-tarte horretako (18-34 urte) emakume emantzipatuen ehunekoa handiagoa da gizon emantzipatuen baina (% 38,7 eta % 31,4, hurrenez hurren).

Baina alde handiena adinak markatzen du. 25 urte bete aurretik, hau da, 18 eta 24 urte bitartekoen artean, gazteen % 8,8 baino ez dago emantzipatuta, 25 eta 29 urte bitartekoen artean % 36,4, eta 30-34 urte bitartekoen artean gehienak emantzipatuta daude, % 67,5, zehazki.

Atzerriko nazionalitatea duten gazteen emantzipazio-ehunekoak ere nagusi dira (% 60,3), Espainiako nazionalitatea duten gazteen kasuan ez bezala (% 29,4).

1.1.grafikoa

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoa, sexuaren, adinaren, lurralde historikoaren eta nazionalitatearen arabera




18 eta 34 urte bitarteko persona emantzipatuen ehunekoak ez du alde nabarmenik izan azken urteetan: 2015ean 35 urtez azpiko gazteen % 37,0 zegoen emantzipatuta, 2017an % 35,6 eta 2019an % 36,0.

² Txosten honetan aurkezten diren pertsona emantzipatuen datuak Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Beharrei eta Eskaerari buruzko Inkestatik datoz. Datu horiek, inkesta batetik datozenez, errore-marjina bat dute. Hori kontuan hartuta, ikusten dugu datuak oso koherenteak direla Gazteen Euskal Behatokiak bere online estatistiketan aurkeztutakoekin; estatistika horiek Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboaren Inkestatik (BAI) abiatuta kalkulatu dira. BAItik abiatuta kalkulatuak diren arabera (horiek ere errore-marjina bati lotuta daude), 18-34 urteko pertsona emantzipatuen ehunekoa % 32,9 zen 2021ean.

1.2.grafikoa

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoaren bilakaera




1.2. Gazte emantzipatuen bizikidetza erak

Gazteak batez ere bikotearekin emantzipatzen dira; hala, 2021ean, 35 urtetik beherako hamar pertsona emantzipatutik seik (% 61,6) bikotekidearekin (seme-alabekin edo seme-alabarik gabe edo familiako beste pertsona batzuekin) bizi direla diote³.

1.3.grafikoa


18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen bizikidetza era 2021ean (%)



Inkesta honen aurreko edizioetan ere bikotekidearekin emantzipatzearen nagusitasuna egiaztatu da. Gainera, bakarrik bizi diren 35 urtetik beherakoak gehiago dira lagunekin bizi direnak baino. Bestalde, beste egoera batean (seme-alabak dituen guraso bakarra, etxebizitza anai-arrebekin partekatzen duten pertsona emantzipatuak, beren ardurapeko gurasoren batekin bizi direnak, etab.) dauden ehunekoa nabarmena da, emantzipazioaren kasuistika askotarikoa baita.

³ Espainiako nazionalitatea duten oso gazte emantzipatu gutxi bizi dira bikotekidearekin eta, aldi berean, seme-alabak ez diren familiako beste pertsona batzuekin, baina Euskadin bizi diren atzerriko nazionalitatea duten gazte emantzipatuen % 15en bizikidetza-modua da hori.

1.4.grafikoa
18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen bizikidetzaren bilakaera (%)



Sexuak edo adinak aldeak markatzen dituzte emantzipatzeko moduan. Emakumeak gizonak baino gehiago emantzipatzen dira bikotekidearekin, eta gutxiago bakarka edo lagunekin. Emakume emantzipatu gehiago egoteak eta emakumeak bikotean emantzipatzeak gizonen eta emakumeen emantzipazio-eredu desberdinen berri ematen du: emakumeak lehenago emantzipatzen dira, baina bikotekidearekin; gizonak ere bikotekidearekin emantzipatzen dira gehienbat, baina bakarka edo lagunekin emantzipatzen direnen ehunekoak handiagoak dira emakumeenak baino.

Bestalde, adinak gora egin ahala, bikotekidearekin emantzipatzeak ere gora egiten du, eta, aldi berean, lagunekin edo beste senide batzuekin bizitzeak behera egiten du.

1.1.taula
18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen bizikidetzaren, sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera (%)

(%)	GUZTIRA	Sexua		Adina		Nazionalitatea	
		Emakumeak	Gizonak	30 urtetik behera	30 eta 34 urte artean	Espainiarra	Atzerritarra
Bikotekidearekin (seme-alabekin edo beste senide batzuekin zein ez)	61,6	65,7	56,5	52,4	67,4	64,3	55,4
Bakarrik	14,4	11,6	17,9	14,8	14,2	18,2	6,1
Lagunekin	7,2	5,1	9,8	10,5	5,0	4,2	13,9
Bestelako egoera (beste senide batzuekin eta abar)	16,8	17,6	15,8	22,1	13,4	13,4	24,5
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
(n)	518	274	244	221	297	418	100

Atzerriko nazionalitatea duten pertsonak gehiago jotzen dute etxebizitza lagunekin partekatzerara edo Espainiako nazionalitatea duten gazteen artean hain hedatuta ez dauden beste bizikidetzaren modu batzuetara (beste senide batzuekin, etab.).

Bestalde, bikotekidearekin bizi diren pertsona emantzipatuei erreparatzen badiegu, ikusten dugu gehienak lanean ari direla, baina emakumeen % 15,9k adierazi du etxeko lanetan ari dela; gizonen kasuan, ordea, ez dugu bat ere aurkitu egoera horretan. Aztertu beharko lirateke kasuistika pertsonal desberdinak, inkesta honen bidez jaso ezinak, baina pentsa liteke etxeko lanetan aritzen diren emakume gazte emantzipatu horietako gehienak beren bikotekideekiko mendekotasun ekonomikoko egoeran egongo liratekeela.

2. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN ETXEBIZITZEN EDUKITZE-ERREGIMENA ETA ETXEBIZITZAK DAKARREN GASTU EKONOMIKOA


2.1. Etxebizitzaren edukitze-erregimena

18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen erdia (% 51,6) bere jabetzako etxebizitza batean bizi da (edo berarekin bizi den pertsonaren jabetzakoa), baina kategoria horrek hainbat egoera biltzen ditu: gehienak etxebizitza hori ordaintzen ari dira (% 34,0); beste % 15,3k erabat ordainduta dute, eta gainerako % 2,3k oinordetzan edo dohaintzan jaso dute.

Gutxiago dira alokairuan bizi diren gazte emantzipatuak (% 42,1, zehazki). Azkenik, emantzipatutako gazteen % 6,3 erabiltzeko lagatako etxebizitzetan bizi da.

2.1.grafikoa


18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuak 2021ean bizi diren etxebizitzaren edukitze-erregimena (%)



Inkesta honen edizio guztietan ikusten da jabetzako etxebizitzetan bizi diren gazte emantzipatuen ehunekoa alokairuan bizi direnena baino handiagoa dela.

2.2.grafikoa

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren edukitze-erregimenaren bilakaera (%)



2021eko datuen arabera, emakumeak gizonak baino gehiago emantzipatzen dira jabetzako etxebizitza batean (% 55,1 eta % 47,5, hurrenez hurren). Aldiz, emakume gazteak gizon gazteak baino gutxiago bizi dira alokairuan (emakume gazte emantzipatuen % 39,3 eta gizon gazte emantzipatuen % 45,4).

Adinak ere funtsezko aldea ezartzen du edukitze-erregimenean. 30 urtetik beherako pertsona emantzipatuen artean, alokairuan bizi direnen ehunekoa jabetzan bizi direnena baino handiagoa da (% 49,5 alokairuan eta % 44,5 jabetzan); 30 eta 34 urte bitartekoaren artean, berriz, gehienek jabetzako etxebizitza eskuratu dute (% 56,3).

2.1.taula

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuak 2021ean bizi diren etxebizitzan edukitze-erregimena, sexuaren eta adinaren arabera (%)

(%)	GUZTIRA	Sexua		Adina	
		Emakumeak	Gizonak	30 urtetik behera	30 eta 34 urte artean
Jabetzan	51,6	55,1	47,5	44,5	56,3
Alokairuan	42,1	39,3	45,4	49,5	37,1
Beste bat (lagata...)	6,3	5,6	7,2	6,0	6,5
Guztira	100	100	100	100	100
(n)	518	274	244	221	297

Bestalde, alokairuan bizi diren gazte emantzipatuen ehuneko handiena Bizkaian erregistratu da (% 48,1), izan ere, lurralde horretan ehuneko horrek etxebizitza jabetzan dutenena gainditzen baitu (% 47,2). Aitzitik, Araban eta Gipuzkoan gazteen erdia baino gehiago bizi da jabetzako etxebizitza batean (% 54,1 eta % 56,9, hurrenez hurren).

Atzerriko nazionalitatea duten gazte emantzipatuak Espainiako nazionalitatea dutenak baino askoz ere gehiago bizi dira alokairuan (% 78,0 eta % 25,9, hurrenez hurren). Are gehiago, gazte atzerritarren datuak gehiago xehatuz gero, ikusten dugu pertsona horietako batek ere ez duela etxebizitza herentzian edo dohaintzan jaso, ezta lagata ere.

2.2.taula

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuak 2021ean bizi diren etxebizitzan edukitze-erregimena, lurralde historikoaren eta nazionalitatearen arabera (%)


(%)	GUZTIRA	Lurralde Historikoa			Nazionalitatea	
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Espainiarra	Atzerritarra
Jabetzan	51,6	54,1	47,2	56,9	65,0	21,9
Alokairuan	42,1	39,6	48,1	34,4	25,9	78,0
Beste bat (lagata...)	6,3	6,3	4,7	8,7	9,2	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	518	132	196	190	418	100

Badirudi alokairuaren aukera ez dela gazteek gehien nahi dutena. Alokairuan bizi diren gehienek diote horrela bizi direla ez dutelako erosteko diru-sarrera nahikoa eta egonkorrik (% 78,1). Eta, gainera, beste % 10,7k adierazi du aldi baterako irtenbidea dela, erosi ahal izan arte.

Erosi ahal izateko diru-sarrera nahikorik edo egonkorrik ezaren aipamena handitu egin da 2019tik 2021era (alokairuan bizi diren emantzipatutako gazteen % 65,4k aipatu zuen hori 2019an, eta % 78,1ek 2021ean).

2.3.grafikoa


2021ean alokairuan bizi diren emantzipatutako 18 eta 34 urte bitarteko gazteek alokairua aukeratu izanaren arrazoiak (%)



Oro har, alokairuan bizitzearekiko poztasuna ez da oso handia; izan ere, alokairuan bizi direnen artean, gehiago dira egoera horrekin poztasun gutxi edo batere poztasunik ez dutela diotenak (% 54,9), poztasun handia edo nahikoa sentitzen dutela diotenak baino (% 45,2). Eta alokairuan bizitzaren gogobetetzeak behera egin du aurreko urteekin alderatuta (2015ean, alokairuan emantzipatutako gazteen % 79,1ek poztasun handia edo nahikoa zuen bere egoerarekiko).

2.4.grafikoa

Alokairuan bizi diren emantzipatutako 18 eta 34 urte bitarteko gazteek alokairuan bizitzearekin duten poztasunaren bilakaera (%)



Hori ez da harritzekoa, kontuan hartzen badugu, alde batetik, alokairuan bizi diren gazte gehienek adierazten dutela horrela bizi direla baldintzengatik eta ez nahiago dutelako, eta, bestetik, alokairuko errenten goranzko bilakaerari erreparatuta, jarraian ikusiko dugun bezala.

2.2. Etxebizitzak hileroko dakarren gastua

2021ean, alokairuan bizi diren gazte emantzipatu gehienek hilean 451 eta 750 euro arteko errentak ordaintzen dituztela diote (zehazki, % 61,3). % 16,3k hilean 450 euro baino gutxiago ordaintzen du⁴, eta beste % 22,0k hilean 750 euro baino gehiago. Oro har, alokairuan emantzipatutako pertsonen erdiek 630 euro baino gehiago ordaintzen dute hilean, eta beste erdiek kopuru hori baino gutxiago. Batez bestekoa 641,20 eurokoa da hilean.

Alokairuan emantzipatutako gazteek ordaintzen dituzten 641,20 euro horiek, batez beste, alokairuko etxebizitza libreen batez besteko errentaren azpitik daude Euskadin 2021ean, Alokairu Merkatuaren Estatistikaren (AME) arabera, hilean 710,60 eurokoa baita⁵. Estatistika hori Eusko Jaurlaritzaren fidantza-gordailuetan oinarritzen da, eta ez higiezin agentziek eskaintzen dituzten zifretan (azken zifra horiek handiagoak izaten dira, baina horrek ez du esan nahi alokairu-kontratua azkenean prezio horretan sinatzen denik).

Bestalde, etxebizitza erosi eta hipoteka-kreditu bat ordaintzen ari direnen artean, kreditua amortizatzeko eta interesak ordaintzeko gastuaren hileko batez besteko zenbatekoa 515,69 eurokoa da 2021ean.

Euskadiko Jabetza Erregistratzaileen eta Erregistroen Elkargoak jaso eta Etxebizitzaren Euskal Behatokiak argitaratzen duen 2021eko laugarren hiruhilekoko Higiezin Erregistro Estatistikaren arabera, 2021eko azken hiruhileko horretako hileko batez besteko hipoteka-kuota 659,11 eurokoa da Euskadin⁶. Gazteek hipoteka ordaintzeko egiten duten gastua batez besteko hori baino dezente txikiagoa da⁷, eta emantzipatutako gazteek alokairuan ordaintzen duten hileko batez besteko errenta baino txikiagoa ere bai.

Diru-tarteen araberrako azterketak erakusten duenez, hipoteka-mailegua duten gazte emantzipatuen % 11,8k hilean 750 euro baino gehiago ordaintzen ditu. Alokairuan emantzipatutako pertsonen kasuan, hilean 750 euro baino gehiagoko alokairu-errenta ordaintzen dutenen ehunekoa bikoiztu egiten da eta % 22,0ra iristen da.

⁴ Baliteke errenta oso baxuen berri ematen dutenak etxebizitza partekatzen duten pertsonak izatea eta beren logelagatik edo pisuaren zatiarengatik ordaintzen dutena adieraztea. Beraz, kalkulatu bidez besteko errenta tentuz hartu behar da, batez besteko errenta erreala baino txikiagoa izan daitekeelako.

⁵ Etxebizitzaren Euskal Behatokia (2022): *Etxebizitzen prezioen estatistikoei buruzko txostena* [linean] Hemen eskuragarri: https://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/documentacion/ovv_metodologia_precios/eu_def/adjuantos/prezioak.pdf (21. orrialdea) [Kontsulta: 2023/04/21]


⁶ Etxebizitzaren Euskal Behatokia: *Higiezin Erregistro Estatistika, 2021eko 4. hiruhilekoa* (Excelleko taulak) [linean] Hemen eskuragarri: [2021ko Higiezin Erregistro Estatistika - ETXEBIZITZAKO BEHATOKIA. Sektorearen egoera. \(euskadi.eus\)](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/ovv_metodologia_precios/eu_def/adjuantos/prezioak.pdf) (3.5.1T4. taula) [Kontsulta: 2023/04/21]

⁷ Zehaztu behar da gastu hori ez dutela aitortu hipoteka-mailegua duten gazte emantzipatu guztiek; izan ere, galdera hori etxebizitza aldatzeko edo birgaitzeko beharrik ez duten pertsonen soilik egin zaie (hau da, hipoteka-kreditua duten gazteen % 78). Gainera, pertsona batzuek ez diote galderari erantzun nahi izan. Hori dela eta, azkenean, hipoteka-mailegua dutenen artean, amortizazioagatik eta interesengatik hilean zenbat ordaintzen duten adierazi dutenen ehunekoa % 61,2 da.

Etxebizitzako hileko gastuaren bilakaerak adierazten du alokairu-errenta gisa hilero ordaindutako zenbatekoak igo egin direla, baina hipoteka-kreditu bat ordaintzen ari direnen artean ez da halakorik gertatu. 2015ean eta 2017an, alokairuan zeuden gazteek batez beste 572 euro ordaintzen zituztela zioten; 2019an, 623 euro; eta 2021ean, 641 euro. Hipoteka-kredituen kasuan, amortizazio eta interesen hileko zenbatekoa antzekoa izan da 2019an (517 euro) eta 2021ean (516 euro).

2.5.grafikoa

Emantzipatutako 18 eta 34 urte bitarteko gazteek hilean, alokairu-errenta edo hipoteka-kuota direla eta, izaten dituzten batez besteko gastuen bilakaera, etxebizitzaren edukitze-erregimenaren arabera (euro)



**Ez dakizkigu (ez dago daturik eta) etxebizitza erosi eta hipoteka- mailegua zuten gazte emantzipatuek 2015ean eta 2017an hilero ordaintzen zituzten zenbatekoak.*

2.3. Diru-sarreraren eta etxebizitzan gastatutakoaren arteko erlazioa

Hipoteka ordaintzen ari diren gazte emantzipatuen etxeetan, kide guztien artean dituzten batez besteko diru-sarrerak handiagoak dira alokairuan bizi direnenak baino. Hipoteka ordaintzen dutenen diru-sarreraren hileko zenbateko garbia 2.962,22 eurokoa da; alokairuan bizi direnen artean, berriz, etxekoen hileko diru-sarrera garbiak 1.890,16 euro dira (hau da, 1.000 euro inguruko batez besteko aldea). Zehaztu behar da, hipoteka bat ordaintzen ari direnen kasuan, etxean bi pertsonak edo gehiagok diru-sarrerak dituztela diotenen ehunekoa % 67,9 dela; alokairuan bizi direnen artean, berriz, ehunekoa hori % 52,1era jaisten da.

Etxekoen diru-sarrerak, guztira, eta hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko gastuak kontuan hartuta⁸, ikusten da etxebizitza-gastuak dituzten gazteen % 33,8 dagoela finantza-erakundeek bideragarritzat jotzen duten gehieneko zorpetze-mugaren gainetik, etxekoen diru-sarreraren % 30 baino gehiago bideratzen baitu hipotekaren edo alokairu-errentaren kuota


⁸ Kalkulu hori egiteko, etxebizitza ordaintzeko hilero zenbat gastatzen duten eta etxeko kide guztien artean hilean zenbat irabazten duten azaldu diguten pertsonak hartu dira oinarritzat. Emantzipatuta dauden eta etxebizitza-gastuak (hipoteka edo alokairu-errenta) dituzten gazteen % 71,5 dira gastuak eta diru-sarrerak azaldu dizkiguten horiek. Zehazkiago, hipoteka-kreditua ordaintzen ari diren pertsona emantzipatuen artean, % 59,1ek beren diru-sarreraren eta gastuen berri eman dute; alokatutako etxebizitza batean emantzipatutako pertsonen artean, berriz, % 81,6k adierazi dute beren diru-sarreraren eta gastuen berri.

ordaintzera. Eta, zehazkiago, % 22,1ek etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago bideratzen du ordainketa horietara, eta horrek argi eta garbi adierazten du etxe horretako familia gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dagoela etxebizitza ordaintzeko.

Hala ere, alde handiak daude alokairuko etxebizitzan edo jabetzako etxebizitzan emantzipatutako pertsonen artean. Alokairuan emantzipatutako pertsonen artean, hileko errentagatik zenbat ordaintzen duten eta familiaren diru-sarrerak zeintzuk diren adierazi dutenen artean, hamarretik ia lau gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daude, etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago errenta ordaintzeko erabiltzen dutelako (% 39,4). Hipotekadun gazte emantzipatuen artean, etxebizitza-gastuak eta familia-diru-sarrerak adierazi dituztenen artean, aldiz, % 0,8 baino ez dago gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran hipoteka-kuota ordaintzeko. Azken kasu horretan, argitu behar da banku-erakundeek hipoteka-mailegua eskatzen duten pertsonen egoera aztertzen dutela (diru-sarrerak, aurrezkiak, lan-egonkortasuna, kreditu-historiala, etab.), eta ez diotela kreditua ematen hasiera batean hipoteka ordaintzeko gainzorpertzeko edo gehiegizko esfortzu ekonomikoa egiteko arriskuan dagoen pertsona bati.

2.1.irudia

2021ean alokairuan edo hipotekatuta emantzipatutako gazteen hileko batez besteko diru-sarrerak eta etxebizitza ordaintzeko gastuak eta gehiegizko esfortzu ekonomikoa (gastu hori ordaintzeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago bideratzeagatik)



**Datu horiek alokairu-errentan edo hipoteka-kuotan hileko gastuei buruzko informazioa, bai eta etxeko guztizko diru-sarrerei buruzkoa ere, eman duten pertsonen dagozkie. Hipoteka-mailegua dutenen kasuan, gainera, etxebizitza aldatzeko edo birgaitzeko beharrik ez duten pertsonak soilik hartu dira kontuan. Guztira, hipoteka dutenen % 59,1 eta alokairuan bizi direnen % 81,6 dira.*


Hipotekan edo alokairu-errentan hileroko ordainketak egiteko betebeharra duten emakume emantzipatu gehiago daude gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran, hipoteka edo alokairua duten gizon emantzipatuak baino (emakumeen % 25,3 eta gizonen % 18,3)

2.4. Diru-laguntzak eta babestutako etxebizitza

Oro har, emantzipatutako gazteen % 12,4k adierazi du etxeko norbaitek laguntza ekonomikoak jasotzen dituela, hala nola Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL). Alokairuan bizi diren gazteen artean, % 26,1ek jasotzen ditu dirulaguntzak.

Laguntza ekonomiko publikoren bat jasotzen duten gazte emantzipatuen ehunekoak gora egin du 2019. urtearekin alderatuta, eta 2015ean eta 2017an erregistratutakoaren antzeko mailan dago (2015ean % 12,1 zen, 2017an % 11,0 eta 2019an % 8,7).

2.6.grafikoa
2021ean diru-laguntzak jasotzen duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuak (%)



Bestalde, emantzipatutako gazteen % 12,6 etxebizitza babestu batean bizi da: jabetzako etxebizitza batean bizi diren eta hipoteka ordaintzen ari diren pertsonen artean % 22,8 dira, etxebizitza bat jabetzan erabat ordainduta dutenen artean % 12,5 eta alokatutako etxebizitza batean bizi direnen artean % 6,9 baino ez. Izan ere, alokairuko etxebizitza babestuak erosteko eskaintakoak baino askoz gutxiago dira.


Etxebizitza babestu batean (jabetzan edo alokairuan) bizi diren 18-34 urteko pertsona emantzipatuen ehunekoa handiagoa da Araban (% 22,6) Bizkaian (% 11,0) edo Gipuzkoan (% 10,0) baino. Hori logikoa da kontuan hartuta Araban eskrituratutako etxebizitza babestuen ehunekoa (ez bakarrik 2021ean, baita aurreko urteetan ere) Bizkaian eta Gipuzkoan izandako ehunekoak baino handiagoa dela. Zehazki, 2021ean, Araban eskrituratutako pisu guztien % 12,4 babestuak ziren; Bizkaian, % 3,6; eta Gipuzkoan, % 4,1. Hau da, Araban, Euskadiko biztanleriaren % 15arekin, urte horretan gure autonomia-erkidegoan notario aurrean eskrituratutako etxebizitza babestu guztien % 33,5 eskrituratu zen⁹.

⁹ Notariotzaren Elkargo Nagusiak argitaratutako datuak oinarri hartuta.

Bestalde, etxebizitza babestu batean bizi diren espainiar nazionalitateko gazteen ehunekoa etxebizitza babestuan bizi diren gazte atzerritarrena baino askoz handiagoa da (% 17,2 eta % 2,2, hurrenez hurren).

2.7.grafikoa

2021ean etxebizitza babestu batean bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuak, lurralde historikoaren eta nazionalitatearen arabera (%)



Etxebizitza babestu batean bizi diren gazte emantzipatuen ehunekoa zertxobait jaitsi da azken urteetan: 2015ean % 15,9 zen, 2017an % 18,1era igo zen, 2019an % 13,6ra jaitsi zen eta 2021ean % 12,6ra¹⁰.

Ezin da zehaztu etxebizitza babestu batean bizi diren gazteek zenbat gastatzen duten etxebizitza ordaintzeko eta zenbatek gehiegizko esfortzu ekonomikoa egin behar duten; aztertutako laginaren barruan egoera horretan dauden pertsonen kopurua ez baita nahikoa estatistikoki adierazgarriak diren datuak emateko.

¹⁰ Jaitsiera horrek zerikusia izan dezake etxebizitza babestuen salerosketan izandako beherakadarekin, mota horretako etxebizitza gutxiago eraikitzeari lotuta baitago. Ikus Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren “Etxebizitzaren merkatuko adierazleak EAE (2021eko 4. hiruhilekoa)” izeneko txostena [linean] Hemen eskuragarri:

https://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_sv_cm21/eu_ovv_sevi/adjuntos/pdf/dicadores4t-2021-EU.pdf [Kontsulta: 2023/04/21]

3. EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK BIZI DIREN ETXEBIZITZEN ETA INGURUNEAREN EZAUGARRIAK

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen % 53,8k dio beren lehen etxebizitza dela orain bizi den hori. Lehenengo etxebizitzan bizitzea ohikoagoa da jabetzako etxebizitza batean bizi direnen artean (dagoeneko guztiz ordainduta dutenen % 69 eta hipoteka ordaintzen ari direnen % 74). Aitzitik, etxebizitzan txandaketa ohikoagoa da alokairuan bizi direnen artean (% 71,2rentzat hori ez da bizi den lehen etxebizitza). Atzerriko nazionalitatea duten gazteen artean ere ohikoagoa da etxer aldatzea (% 70,9rentzat orain bizi den etxebizitza ez da lehenengoa).

Jarraian, gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitza horiek nolakoak diren azalduko da.

3.1. Emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzaren ezaugarri fisikoak


Emantzipatutako gazteen % 90 baino gehiago eraikin kolektiboetako pisuetan bizi dira; zehazki, % 94,9 (% 95,4 2019an). % 3,3 familia bakarreko etxebizitza isolatu batean bizi da, eta gainerako % 1,8 familia bakarreko etxebizitza atxiki batean.

Gainera, gazte emantzipatu gehienak (% 83,4) bigarren eskuko etxebizitza erabilietan bizi dira; soilik % 16,6 bizi da etxebizitza berri batean. Banaketa hori 2019an erregistratutakoaren ia berdina da.

Bi aldagai horien konbinazioak argi uzten du zein etxebizitza motatan bizi diren gazte emantzipatuak: % 80,0 bigarren eskuko pisuetan, % 14,9 pisu berrietan eta gainerako % 5,0 familia bakarreko etxebizitzetan, berriak edo erabiliak.

3.1.grafikoa

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen banaketa, 2021ean bizi diren etxebizitza motaren arabera (%)



Arabako gazte emantzipatuak Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak baino neurri handiagoan bizi dira eraikuntza berriko etxebizitzetan (Arabako % 20,0, Bizkaiko % 14,9 eta Gipuzkoako % 17,6).


Erositako etxebizitza batean (erabat ordainduta egon zein hipoteka-mailegua ordaintzen ari den) emantzipatutako gazteen artean, eraikuntza berriko etxebizitza batean bizi direnen ehunekoa (% 30,5) alokairuan bizi direnen artean baino askoz handiagoa da, alokairuan bizi direnen % 3,0k soilik estreinatu baitu etxebizitza hori. Gainera, etxebizitza erosi duten pertsonen

% 6,6 familia bakarreko etxebizitza batean bizi da (isolatua edo atxikia), eta etxebizitza alokatu dutenen artean, berriz, ehuneko hori % 1,1era jaisten da.

Antzinatasunari dagokionez, emantzipatutako gazteen ia erdia (% 49,2) 50 urtetik gorako etxebizitzetan bizi da, % 20,4, hau da, bosten bat 25 eta 50 urte bitarteko etxebizitzetan eta

% 30,3 (ia heren bat) 25 urtetik beherako etxebizitzetan. Batez beste, gazteek diote beren etxebizitzak 46 urteko antzinatasuna duela, Euskadiko etxebizitza-parkearen batez bestekoaren antzekoa (47 urte)¹¹.

Gráfico 3.2.
18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen banaketa 2021ean, bizi diren etxebizitzaren antzinatasunaren arabera (%)



Arabako gazteak bizi diren etxebizitzak, batez beste, Bizkaikoak (49 urte) edo Gipuzkoakoak (48 urte) baino berriagoak dira (34 urteko antzitasuna dute).

Etxebizitzaren tamainari dagokionez, emantzipatutako gazte gehienak 61-90 metro karratuko etxebizitzetan bizi dira (% 54,2). 60 m² baino gutxiagoko etxebizitzetan bizi da beste % 21,5, eta 90 m² baino gehiagoko etxebizitzetan % 24,3.

Emantzipatutako gazteen etxebizitzaren batez besteko azalera 80,2 m²-koa da. Batez besteko hori Euskadiko etxebizitza-parkearena baino txikiagoa da; izan ere, Euskadiko etxebizitzaren batez besteko tamaina 87,3 m²-koa da 2021ean¹².

Arabako gazte emantzipatuen etxebizitzaren batez besteko azalera zertxobait handiagoa da (83,6 m²) Gipuzkoako eta Bizkaiko gazte emantzipatuen etxebizitzarena baino (81,7 m² eta 78,0 m², hurrenez hurren). Hori bat dator Arabako parkeko etxebizitzaren batez besteko azalera (92, m²) Gipuzkoakoa (87,0 m²) eta Bizkaikoa (86,0 m²) baino handiagoa izatearekin¹³. Nolanahi ere, emantzipatutako gazteek bizi diren etxebizitzaren tamaina beren lurraldeko etxebizitzaren batez besteko tamaina baino txikiagoa da beti.

¹¹ Iturria: Eustat: *Etxebizitzaren Udal Estatistika 2021* [linean] Hemen eskuragarri: [Estatistika taulak: Euskal A Eko familia etxebizitzak, lurralde-eremuaren arabera egitura-ezaugarri jarraiki. 2021/01/01 \(eustat.eus\)](https://eustat.eus/estatistika-eta-eremuaren-arabera-egitura-ezaugarri-2021-01-01)


¹² *Ibidem*

¹³ *Ibidem*

Hala ere, alderik nabarmenena etxebizitzaren edukitze-erregimenarekin lotuta dago; izan ere, gazteek erositako etxebizitzaren batez besteko tamaina alokatutako etxebizitzarena baino handiagoa da (85,5 m² eta 73,4 m², hurrenez hurren).

3.3.grafikoa

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren tamaina 2021ean, lurralde historikoaren eta etxebizitzaren edukitze-erregimenaren arabera * (%)



**Ez da lagatako edo herentzian jasotako etxebizitzaren tamaina azaltzen, aztertzen ari garen inkestaren laginean horrelako egoeran dauden pertsona gutxi daudelako, beraz, horiei dagozkien emaitzak ez dira estatistikoki fidagarriak.*

Batez beste, 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuak bizi diren etxebizitzetako gela kopurua 6 da, sukaldea, egongela, logelak eta komunak kontuan hartuta. Gazte horien etxebizitzaren erdiak baino gehiagok komun bakararra dute (% 54,9), eta % 45,1ek bi komun edo gehiago ditu (Euskadiko batez bestekoaren gainetik, Euskadiko etxebizitza guztien % 34,7k bi komun edo gehiago baititu)¹⁴.

Arabako gazteen etxebizitza gehienek bi komun edo gehiago dituzte (% 60,4), eta Bizkaiko eta Gipuzkoako gazteak bizi diren etxebizitzetan, berriz, gutxiengoa da komun bat baino gehiago duena. Erositako etxebizitza gehienek ere bainu bi edo gehiago dituzte, alokatutako etxebizitzek ez bezala.

Bestalde, emantzipatutako gazteen etxebizitzaren % 71,5ek igogailua dute eraikinean (ia Euskadiko etxebizitza-parkearen batez bestekoaren ehuneko bera, % 70,8). Erdiak baino gutxiago dira trastelekua duten gazte emantzipatuen etxebizitzak (% 45,4), eta are gutxiago garajea dutenak (% 35,3).

Arabako gazte emantzipatuen etxebizitzek Bizkaiko eta Gipuzkoako gazteen etxebizitzek baino neurri handiagoan dituzte prestazio horiek. Etxebizitza erosi duten gazteek, oro har, alokairuan bizi direnek baino prestazio gehiago dituztela diote. Espainiako eta atzerriko nazionalitateko

¹⁴ *Ibidem*

pertsonen artean ere aldeak daude; azken horiek prestazio gutxiago baitituzte beren etxebizitzetan.

Gainera, 30 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzetan 18 eta 29 urte bitarteko emantzipatuak bizi direnetan baino ohikoagoa da igogailua eta garajea izatea, baina egia da azken horiek (18-29 urtekoak) gehiago bizi direla alokairuko etxebizitzetan, eta, ikusi den bezala, etxebizitza horiek, oro har, prestazio gutxiago dituzte.

Etxebizitzen ezaugarrietan ez da alderik ikusten emantzipatutako pertsonen sexuaren arabera.

3.1.taula

Beren etxebizitzetan prestazio zehatz batzuk dituzten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuak, nazionalitatearen, lurralde historikoaren eta etxebizitzaren edukitze-erregimenaren arabera (%)

(%)	GUZTIRA	Nazionalitatea		Lurralde Historikoa			Edukitze-erregimena*	
		Espainiarra	Atzeritarra	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Erosita	Alokatuta
Bi komun edo gehiago	45,1	48,7	36,9	60,4	41,6	42,6	56,2	31,3
Igogailua	71,5	75,8	61,9	81,6	69,7	69,4	77,2	66,6
Trastelekua	45,4	48,2	39,3	78,1	35,7	43,9	58,3	30,4
Garajea	35,3	40,1	24,7	54,4	25,9	39,8	48,7	19,1
(n)	518	418	100	132	196	190	282	180
* Ez dira herentzian edo dohaintzan jasotako edo lagatuko etxebizitzetan bizi direnen datuak sartu, laginean 56 pertsona baino ez daude egoera horretan.								

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuak 2021ean bizi diren etxebizitzen ezaugarriak aurreko urteetan adierazitakoekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu 50 urtetik gorako antzinatasuna duten etxebizitzetan bizi diren gazteen kopuruak gora egin duela, baina gazteak bizi diren etxebizitzen batez besteko tamainak ere gora egin duela, baita bi komun edo gehiago dituzten etxebizitzen ehunekoak ere.

3.2.taula

Beren etxebizitzek ezaugarri fisiko zehatz batzuk dituztela dioten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoaren bilakaera

	2015	2017	2019	2021
Eraikin kolektiboko pisua	95,0	93,7	95,4	94,9
Erabilitako etxebizitza (ez berria)	77,3	76,1	83,0	83,4
50 urte baino gehiagoko antzinatasuna	24,4	39,1	38,4	49,2
90 m2 baino gehiagoko azalera	19,2	18,3	18,6	24,3
Bi komun edo gehiago	*	38,5	37,8	45,1
Igogailua	72,9	71,9	73,0	71,5
Trastelekua	43,6	50,1	43,5	45,4
Garajea	33,1	39,4	33,9	35,3
(n)	468	422	498	518
* Ez dago urte horretako daturik				


3.2. Emantzipatutako gazteek beren etxebizitzekin sentitzen duten gogobetetasuna

Oro har, emantzipatutako gazte gehienak pozik daude beren etxebizitzarekin: % 44,9k gogobetetze-maila altua dute, eta beste % 35,1ek nahiko altua. Aitzitik, % 19,9k gogobetetze-maila baxua edo nahiko baxua du.

Beren etxebizitzarekin gogobetetze-maila altua dutela diotenak bakarrik hartzen baditugu kontuan, ikusten dugu gogobetetze-maila altu hori adierazi dutenen ehunekoa handiagoa dela (% 50etik gorakoa) Araban eta Gipuzkoan bizi direnen artean, bai eta etxebizitza erosi dutenen artean ere. 30 eta 34 urte bitarteko persona emantzipatuak ere gusturago daude beren etxebizitzarekin 18 eta 29 urte bitartekoak baino. Eta espainiar nazionalitatea dutenek ere atzerriko nazionalitatea dutenek baino gogobetetze handiagoa adierazten dute.

3.4.grafikoa

2021ean beren etxebizitzarekiko gogobetetze-maila altua duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuak, adinaren, lurralde historikoaren, nazionalitatearen eta etxebizitzaren edukitze-erregimenaren arabera (%)



**Ez dira lagatako edo herentzian jasotako etxebizitzetan bizi diren gazteen datuak azaltzen, aztertzen ari garen inkestaren laginean horrelako egoeran dauden pertsona gutxi daudelako, beraz, horiei dagozkien emaitzak ez dira estatistikoki fidagarriak.*

3.3. Emantzipatutako gazteak bizi diren ingurunearen edo auzoaren ezaugarriak

Emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzaren ingurunearen ezaugarriak edo auzoan egon daitezkeen arazoei dagokienez, % 41,2 inguruan aparkalekurik ez egoteagatik kexatzen da, % 27,4 zarategatik, % 15,4 zerbitzuen urritasunagatik (dendak, bankuak, etab.), % 14,0 delinkuentzia edo segurtasun gabeziako arazoengatik, % 13,2k kaleak eta gainerakoak ez mantentzeagatik, eta % 13,1ek kutsaduraz eta/edo usain txarrez hitz egiten du. Aztertutako gainerako alderdiak emantzipatutako gazteen % 10ek baino gutxiagok aipatu dituzte.

3.5.grafikoa

Bizi diren ingurunean edo auzoan azaldutako arazo bakoitza aipatu duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoa, 2021ean (%)



Aparkatzeko arazoak dira, urtez urte, emantzipatutako gazteek gehien aipatzen dituzten arazoak.

3.3.taula

Bizi diren ingurunean edo auzoan azaldutako arazo bakoitza aipatu duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoaren bilakaera (%)

	2015	2017	2019	2021
Aparkatzeko arazoak	43,6	38,0	51,6	41,2
Kanpo zaratak	16,0	20,4	24,0	27,4
Zerbitzu eskasak (dendak, farmaziak, posta, bankuak...)	11,7	11,9	24,1	15,4
Delinkuentzia / Segurtasun eza	9,2	12,2	19,7	14,0
Mantentze falta (kaleak...)	4,1	8,9	12,2	13,2
Kutsadura edo usain txarra	5,9	7,2	12,7	13,1
Komunikazio txarrak / Garraioa	7,7	10,0	21,5	8,9
Garbiketa gutxi / Zabor-bilketa gutxi	7,6	8,5	12,5	8,4
Irisgarritasun eza desgaituentzat	12,2	8,5	21,1	7,9
Gune berde gutxi	8,9	6,3	16,4	7,1
(n)	468	422	498	518


3.4. Emantzipatutako gazteen bizi diren ingurunearekin edo auzoarekin sentitzen duten gogobetetasuna

Auzoarekiko edo inguruarekiko gogobetetze-maila etxebizitzarekiko adierazitakoa baino handiagoa da: emantzipatutako gazteen % 53,5ek gogobetetze-maila altua dute auzoarekiko eta % 32,3k nahiko altua.

Etxebizitzarekiko gogobetetzearen kasuan bezala, ingurunearekiko edo auzoarekiko gogobetetasuna handiagoa da Arabako eta Gipuzkoako gazteen artean eta erositako etxebizitza batean bizi direnen artean. Nolanahi ere, aztertutako kolektibo guztietan gehiago dira auzoarekiko gogobetetze-maila altua dutela diotenak beren etxebizitzarekiko gogobetetze-maila altua dutenak baino.

3.6.grafikoa

Etxebizitzarekiko gogobetetze-maila altua duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen eta auzoarekiko edo ingurunearekiko gogobetetze maila altua dutenen arteko alderaketa 2021ean, lurralde historikoaren eta etxebizitzaren edukitze-erregimenaren arabera (%)



**Ez dira lagatako edo herentzian jasotako etxebizitzetan bizi diren gazteen datuak azaltzen, aztertzen ari garen inkestaren laginean horrelako egoeran dauden pertsona gutxi daudelako, beraz, horiei dagozkien emaitzak ez dira estatistikoki fidagarriak.*

4. EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEN ETXEBIZITZA-PREMIA


18 eta 34 urte bitarteko hiru pertsonatik bi ez daude emantzipatuta; zehazki, % 65,0 gurasoen etxean bizi da.

Adinak eta nazionalitateak ere alde handiak erakusten dituzte: 30 urtera arte gazte gehienak gurasoekin bizi dira. Nazionalitate espainiarra duten gazteen artean, gehienak gurasoekin bizi dira; atzerriko nazionalitatea dutenen artean, aldiz, gehienak emantzipatuta daude.

Bestalde, gurasoekin bizi diren gizon gazteen ehunekoa handiagoa da egoera horretan dauden emakume gazteena baino, nahiz eta bi kasuetan gehiengoak izan. Lurralde historikoak ez du alde nabarmenik erakusten; hala ere, Bizkaia du gurasoekin bizi diren gazteen ehuneko handiena.

4.1.grafikoa

Emantzipatu gabe dauden 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa, sexuaren, adinaren, nazionalitatearen eta lurralde historikoaren arabera (%)



4.1. Aurretik beren kontura bizi izanaren eskarmentua

2021ean gurasoekin bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ia laurdenak (% 23,2) adierazi du bere kontura bizi izan dela noizbait: % 17,0 ikasketengatik edo noizbehinkako lanengatik, eta % 6,2 emantzipatu egin zelako.


Noizbait beren kontura bizi izan direnen ehunekoak gora egiten du adinak gora egin ahala, batez ere emantzipatu egin zirela dioten ehunekoak, 18-24 urtekoen taldean % 1,2 izatetik 30-34 urtekoen taldean % 19,6 izatera igarotzen baita.

Emantzipatu gabeko emakumeen artean, noizbait beren kontura bizi izan direnen ehunekoa emantzipatu gabeko gizonen artean dagoena baino handiagoa da, eta bi kasuetan arrazoi nagusia ikasketak edo aldizkako lanak izan dira.

Ez dago alde nabarmenik lurralde historikoen arabera.

4.2.grafikoa

Noizbait beren kontura bizi izan diren 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen ehunekoa, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)




4.2. Emantzipatu gabeko gazteen etxebizitza-premia

Emantzipatu gabeko pertsonen % 38,3k adierazi du 2021ean etxebizitza bat beharko lukeela (2019an erregistratutako ehunekoa baino bost puntu handiagoa; orduan % 33,3 baitzen); eta etxebizitza-premia duten ia pertsona guztiek (% 96,6) adierazi dute Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) beharko luketela etxebizitza hori.

Etxebizitza-premiak gora egiten du adinak gora egin ahala. Izan ere, 18 eta 24 urte bitartekoen artean, % 29,6k dio etxebizitza behar duela; ehuneko hori % 48,8ra igoten da 25 eta 29 urte bitartekoen artean, eta % 51,1era 30 eta 34 urte bitartekoen artean. Hala ere, ez dago alde nabarmenik sexuaren edo bizi den lurralde historikoaren arabera.

4.3.grafikoa

Etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen ehunekoa, adinaren arabera (%)




Etxebizitza hori EAEn egotea beharko luketela dioten ehunekoak etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko pertsona guztien % 95 baino handiagoa da talde guztietan.

EAEn etxebizitza bat behar dutela dioten emantzipatu gabeko gazte horien artean, % 28,8k esan du lehen etxebizitza eskuratzeko behar handia duela, eta beste % 30,4k behar nahikoa duela. Behar handia dutela dioten ehunekoak gora egiten du adinean aurrera egin ahala. Emakumeek ere gizonek baino premia handiagoa dutela diote, baina sexuaren arabera aldea ez da adinak markatzen duena bezain nabarmena.

4.4.grafikoa

EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen artean, lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren maila, sexuaren eta adinaren arabera (%)




EAEn etxebizitza-premia duten eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra handia dela dioten 18-34 urteko pertsona emantzipatu gabeen ehunekoak hamar puntu igo da 2019tik 2021era (% 18,0tik % 28,8ra).

Gainera, adinak gora egin ahala, lehen etxebizitza eskuratzeko beharrarekin bi urte baino gehiago daramatela dioten gazte emantzipatu gabeen ehunekoak ere gora egiten du, eta % 57,9ra iristen da 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean. Emakumeek ere adierazi dute gizonek baino denbora gehiago daramatela etxebizitza-premian.

EAEn bi urte baino gehiago etxebizitza-premian daramaten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen ehunekoak ere gora egin du 2019tik 2021era, % 24,9tik % 31,0ra.

4.5.grafikoa

EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen artean, lehen etxebizitza eskuratzeko daramaten denbora, sexuaren eta adinaren arabera (%)



4.3. Etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteen lehentasunak

EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko hamar pertsonatik batek etxebizitza hori bizi den auzo berean egotea nahiko luke (% 9,3), beste % 51,5ek gutxienez udalerri berean egotea nahiko luke, beste % 27,1i eskualde berean egotea gustatuko litzaioke eta soilik % 7,3k nahiago luke beste eskualde batean egotea.

Gizonak, 30-34 urteko pertsonak eta Araban bizi direnak dira etxebizitza udalerri berean eskuratzeko lehentasun handiena adierazi duten kolektiboak (auzo berean bizitzea nahiago luketenak barne).

4.6.grafikoa

EAEn etxebizitza-premia duten eta etxebizitza hori bizi diren udalerri berean egotea nahiago duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen ehunekoa, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)




Oraindik ere gehiengoa den arren, auzo edo udalerri berean etxebizitza bat eskuratzeko lehentasunak behera egin du aurreko urteekin alderatuta (% 65,7 zen 2015ean, % 68,4ra igo zen 2017an, % 79,0ra 2019an eta % 60,8ra jaitsi da 2021ean).

Nolanahi ere, etxebizitza auzo edo udalerri berean egotea nahiago dutela dioten pertsonen erdiak baino gehiagok (% 58,8k) adierazi du bere beharretara egokitutako ezaugarriak eta prezioa dituen etxebizitza bat eskuratu ahal izango balu, udalerriz aldatzeko prest egongo litzatekeela, eta % 28,6k, ordea, ez luke udalerriz aldatuko; gainerako % 12,6k ez du argi.

Aukera ekonomikoak kontuan hartuta, ia hainbeste dira etxebizitza erostea aurreikusten dutenak (% 33,6) eta alokatzea aurreikusten dutenak (% 32,0). % 16,5ek erosteko aukera ematen duen alokairuaren alde egiten du, eta gainerako % 17,9ari aukera bat edo bestea berdina zaio. Adinak gora egin ahala, gora egiten du erosteko hautua egiten dutenen ehunekoak, eta behera alokairua aukeratzen dutenenak. Gainerako lurraldeetan ez bezala, Gipuzkoan gehiago dira etorkizuneko etxebizitza alokatzea aurreikusten duten pertsonak.

4.7.grafikoa

EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen artean, etorkizuneko etxebizitzarako aurreikusitako edukitze-erregimena, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)




Nolanahi ere, etxebizitza erosteko asmoa dutenek ez dute alokairua baztertzen, eta erdiek (% 51,7) adierazi dute alokairua planteatuko luketela errentak eskuragarriagoak balira. Aitzitik, % 37,5ek adierazi du ez lukeela inolaz ere alokatuko etxebizitza.

2015ean jasotako erantzunekin alderatuta, handitu egin da erosteko asmoa duten gazteen ehunekoa (% 21,1etik % 33,6ra 2021ean); izan ere, 2021ean, lehen aldiz, gehiago dira erosteko asmoa dutenak alokatzea aurreikusten dutenak baino, alokairu horrek erosteko aukera ematen ez badu.

4.8.grafikoa

EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen banaketaren bilakaera, etorkizuneko etxebizitzarako aurreikusitako edukitze-erregimenaren arabera (%)



4.4. Etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteen aurreikuspenak, emantzipazioari dagokionez, eta diru-sarrerak baldintzatzailea izatea

Emantzipazio-aurreikuspenari dagokionez, etxebizitza-premia duten gazte emantzipatu gabeen % 36,9k uste du bi urteko epean emantzipatzeko aukera izango duela.

Bi urteko epean emantzipatzeko aurreikuspenek behera egin dute apur bat 2015ekoekin alderatuta (orduan, EAEn etxebizitza-premia zuten gazte emantzipatu gabeen % 38,1ek uste zuen bi urte igaro baino lehen emantzipatuko zela), baina nabarmen, 2017ko aurreikuspenekin alderatuz gero (2017an % 46,6k aurreikusten zuen bi urteko epean emantzipatuko zela). Nolanahi ere, bi urteko epean emantzipatzea aurreikusten duten emantzipatu gabeko pertsonen ehunekoa bi puntu igo da 2019an erregistratutakoarekin alderatuta (% 34,6).

Kasu honetan, adina, sexua edo lurralde historikoa baino erabakigarriagoa da diru-sarrerak izatea edo ez izatea. Diru-sarrera propioak dituztenen artean, ehunekoa % 41,6koa da, eta diru-sarrera propiorik ez dutenen artean, berriz, ehuneko hori % 29,4ra jaisten da.

Izan ere, etxebizitza behar duten pertsona guztiek ezin dute etxebizitza eskuratu. Hasteko, Euskadin etxebizitza-premia dutenen artean, diru-sarrera propioak dituztela dioten ehunekoa % 61,8 da. Eta, hala ere, horrek ez du bermatzen etxebizitza bat eskuratu ahal izatea; izan ere, diru-sarrera propioak dituzten lau pertsonatik batek bakarrik (% 26,2) uste du diru-sarrera nahikoak eta egonkorak direla etxebizitza bat eskuratu ahal izateko (horiek, batez beste, hilean 1.575 euroko diru-sarrerak dituzte).

Diru-sarrera propioak dituztenen % 9,1ek diote beren diru-sarrerak nahikoak izango liratekeela etxebizitza bat eskuratzeko, baina diru-sarrera ezegonkorak direla. Egoera horrek zaildu egiten du alokairu-kontratu bat sinatzea edo hipoteka-mailegu bat ematea, eta, beraz, etxebizitza bat eskuratzeko. Beste % 25,3k adierazi du bere diru-sarrerak egonkorak direla, baina ez nahikoak. Eta gainerako % 39,5ek dio diru-sarrera propioak izan arren, ez direla nahikoak ezta egonkorak ere.

4.9.grafikoa


2021ean EAEn etxebizitza-premia, bai eta diru-sarrera propioak ere, dituzten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen balorazioa, beren diru-sarrera horiek etxebizitza bat eskuratu ahal izateko nahikoak diren dagokionez (%)



Zifra absolutuetan (inkestaren arabera), 18 eta 34 urte bitarteko 84.000 gazte inguruk diote etxebizitza bat behar dutela Euskadin; pertsona horien artean, 52.000 inguruk diru-sarrera propioak dituzte, baina 13.600 inguruk diote, beren ustez, etxebizitza bat lortzeko diru-sarrera nahikoak eta egonkorak dituztela, eta, beraz, esan dezakegu horiek direla esku-hartze publikorik gabe emantzipatzeko benetako aukerak dituztenak.

4.1.irudia

2021ean EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen artean, diru-sarrera propioak dituztenen kopurua (absolutuak)




Oro har, EAEn etxebizitza-premia duten eta, era berean, diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen ehunekoa murriztu egin da aurreko urteekin alderatuta: 2015ean, % 68,1ek zituen diru-sarrera propioak; 2017an, % 71,4k; 2019an, % 65,5ek; eta 2021ean, % 61,8k.

Eta etxebizitza bat eskuratzeko diru-sarrera nahikoak dituztenen ehunekoari erreparatuz gero (EAEn etxebizitza-premia duten pertsona guztiei dagokienez, ez diru-sarrera propioak dituztenei dagokienez, lehen aurkeztu den bezala), ikusten dugu ehuneko horrek gora egin zuela 2015etik 2019ra, baina nabarmen egin du behera 2021ean eta 2015ean erregistratutako zifraren azpitik geratu da. Izan ere, 2021ean, etxebizitza bat eskuratzeko diru-sarrera nahikoak eta egonkorak dituztela uste dutenak EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen guztizkoaren % 16,2 dira.

Datu horiek agerian uzten dute bakarrik emantzipatzea, dela etxebizitza erosten, dela alokatzen, gazteen gutxiengo baten esku baino ez dagoela.

4.10.grafikoa


EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen artean, etxebizitza bat eskuratu ahal izateko diru-sarrera nahikoak dituztela dioten ehunekoaren bilakaera (%)



Etxebizitzaren beharra izanik, diru-sarrera propioak dituztenek (diru-sarrera horiek nahikoak eta/edo egonkorak diren alde batera utzita) diote, batez beste, 446 euro erabil litzaketela alokairu-errenta edo, erosiz gero, hipoteka-kuota ordaintzeko. Etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten hamar pertsonatik batek (% 11,3) soilik adierazi du hilean 600 euro baino gehiago bideratu litzakeela gastu horietara, eta gehienak 300 eta 600 euro artean mugitzen dira.

4.11.grafikoa

EAEn etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen banaketa, 2021ean etxebizitza erosteko edo alokatzeko hilean bideratu lezaketen diruaren arabera (%)



Aurreko urteekin alderatuta, EAEn etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten 18-34 urteko gazte emantzipatu gabeek hilero beren gain har dezaketen batez besteko gastuak behera egin du: 461 euro 2015ean, 454 euro 2017an, 496 euro 2019an eta 446 euro 2021ean.

Etorkizuneko etxebizitza erostea aurreikusten duten pertsonak adierazi dute, 2021ean, hilean 500 euro erabil litzaketela, batez beste, etxebizitzaren erosketara finantzatzeko. Alokatzeara


aurreikusten dutenek¹⁵, aldiz, diote batez beste 402 euro erabil litzaketela alokairu-errenta ordaintzeko, hau da, erosteko asmoa dutenek baino ia 100 euro gutxiago.

Etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten gazte emantzipatu gabeek beren gain har lezaketen alokairu-errenta hori urrun dago Alokairu Merkatuaren Estatistikak (AME) 2021ean Euskadin batez besteko alokairu-errenta gisa ezartzen dituen hileko 710,60 euroetatik¹⁶. Are gehiago, etorkizuneko etxebizitza alokatzea aurreikusten duten pertsonen % 3,8k soilik uste du hilean 600 euro baino gehiago erabil litzakeela alokairu-errenta ordaintzeko.

Etorkizuneko etxebizitza erostea aurreikusten dutenek beren gain har lezaketen gastua (500 euro, batez beste) Euskadiko 2021eko azken hiruhilekoko batez besteko hileko hipoteka-kuota baino txikiagoa da (659,11 euro¹⁷), Euskadiko Jabetza Erregistratzaileen eta Erregistroen Elkargoak jasotzen duen eta Etxebizitzaren Euskal Behatokiak argitaratzen duen 2021eko laugarren hiruhilekoko Higiezin Erregistro Estatistikan jasotako datuen arabera.

4.2.irudia

Etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeek etxebizitza erosteko edo alokatzeko beren gain har dezaketen gastuaren eta 2021eko alokairu-errenten eta hipoteka-kuoten hileko batez besteko zenbatekoen arteko aldea (euro)



¹⁵ Ez dira kontuan hartu erosteko aukera ematen duten alokairua hautatuko luketenak.

¹⁶ Etxebizitzaren Euskal Behatokia (2022): *Etxebizitzaren prezioen estatistikoei buruzko txostena* [linean] Hemen eskuragarri: https://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/documentacion/ovv_metodologia_precios/eu_def/adjuantos/prezioak.pdf (21. orrialdea) [Kontsulta: 2023/04/21]

¹⁷ Etxebizitzaren Euskal Behatokia: *Higiezin Erregistro Estatistika, 2021eko 4. hiruhilekoa* (Excelleko taulak) [linean] Hemen eskuragarri: [2021ko Higiezin Erregistro Estatistika - ETXEBIZITZAKO BEHATOKIA. Sektorearen egoera. \(euskadi.eus\)](https://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/documentacion/ovv_metodologia_precios/eu_def/adjuantos/prezioak.pdf) (3.5.1T4. taula) [Kontsulta: 2023/04/21]


Bestalde, erostea aurreikusten dutenek adierazi dute etxebizitza erosteko aurre egin liezaioketen gehieneko prezioa, guztira, 181.456 eurokoa izango litzatekeela, batez beste.

2021eko laugarren hiruhilekoan bigarren eskuko etxebizitza librearen batez besteko prezioa (etxebizitza berria baino eskuragarriagoa dirua aldetik) 243.668 eurokoa zen, guztira, 2021eko laugarren hiruhilekoko Higiezin Erregistro Estatistikaren datuen arabera¹⁸. Zifra hori 60.000 euro garestiagoa da etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten gazte emantzipatu gabeek, batez beste, aurre egin liezaioketen gehieneko prezioa baino. Izan ere, diru-sarrerak dituztenen eta etorkizuneko etxebizitza erostea aurreikusten dutenen % 20,8k soilik adierazi du aurre egin liezaioketen gehieneko prezioa 240.000 eurotik gorakoa dela.

Aurkeztutako datu guztiak kontuan hartuta, ulergarria da EAEn etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten 18-34 urteko gazte emantzipatu gabeko gehienek (% 73,0, zehazki) esatea beren beharrianetara eta aukera ekonomikoetara egokitzen diren etxebizitza gutxi daudela merkatuan.

4.12.grafikoa

EAEn etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen banaketa, merkatuan beren beharrianetara eta aukera ekonomikoetara egokitzen diren etxebizitzaren kopuruari buruzko iritziaren arabera (%)




Etorkizuneko etxebizitzarako aurreikusitako edukitze-erregimena eta diru-sarrerak edozein izanda ere, erosketa-gastuei edo alokairuaren hasierako gastuei (fidantza, abalak, higiezin agentziarentzako ordainsariak, etab.) aurre egiteko, EAEn etxebizitza-premia duten eta diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen % 74,3k kreditu batekin finantzatzea pentsatzen du (kreditu hori erosiz gero, etxebizitzaren guztizko prezioaren % 75 izango litzateke, batez beste, gazteen kalkuluen arabera), % 62,5ek aurrezki propioekin finantzatzea pentsatzen du, % 36,4k senideen laguntzarekin eta % 14,5ek laguntza publikoekin. Adierazi behar da baliabide horiek ez direla baztertzailak, hau da, pertsona berak bere etorkizuneko etxebizitzaren ordainketari aurre egiteko bide ezberdinetan pentsa dezake.

Aurreko zifretan bereziki nabarmentzen da etxebizitza-premia duten gazte emantzipatu gabeen heren batek baino gehiagok, diru-sarrera propioak izan arren, familiaren laguntza ekonomikoa izatea espero duela etorkizuneko etxebizitza finantzatu ahal izateko.

¹⁸ *Ibidem* (1.1.4T4. taula)

4.13.grafikoa

Etorkizuneko etxebizitza proposatutako bideetatik finantzatzea pentsatzen duten EAEn etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten gazte emantzipatu gabeen ehunekoa 2021ean* (%)



**Erantzun anizkoitza, hau da, pertsona berak hainbat erantzun eman zitzakeen.*

5. EAE-N ETXEBIZITZA-PREMIA DUTEN EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEN IRITZIAK ETA JARRERAK ETXEBIZITZA ARAZOAREN KONPONBIDEEI DAGOKIENEZ


5.1. Etxebizitzaren arazoa konpontzeko neurriak

Etxebizitzaren arazoiari irtenbideak bilatzeko orduan, EAEn etxebizitza-premia duten gazte emantzipatu gabeek galdetu zaie, beren ustez, zeintzuk diren, proposatutako zerrenda baten barruan, arazoa konpontzen lagunduko luketen bi neurri nagusiak.

EAEn lehen etxebizitza behar duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsonak gehien babesten dituzten hiru neurriak honako hauek dira: alokairu-errenta merkeagoak litzuzkeen alokairu-erregimena sustatzea, etxebizitza babestu gehiago eraikitzea eta etxebizitza erosteko laguntza gehiago ematea. Hau da, gazteek alokairura zein erosketara bideratutako konponbideak bilatzen dituzte.

5.1.grafikoa

2021ean EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen iritziz, zeintzuk izango liratekeen etxebizitzaren arazoiari aurre egiteko konponbide nagusiak* (%)



* Bi erantzun eman zitezkeen

25 urtetik beherakoek aipatu dute gehien errenta merkeagoko alokairu-erregimena sustatzeko beharra. 30 eta 34 urte bitartekoek, aldiz, gazteagoek baino neurri handiagoan aipatu dute etxebizitza babestu gehiago egin beharko liratekeela, eta, hain zuzen ere, kolektibo horren iritziz, hori litzateke etxebizitzaren arazoaren irtenbide nagusia. Pertsona nagusiago horiek ere neurri handiagoan eskatzen dituzte etxebizitzak erosteko laguntzak edo hipoteka-kredituen interes-tasak jaisteko laguntzak. Ikusten denez, beraz, 30-34 urteko pertsonak gehiago eskatzen dituzte etxebizitza erostera bideratutako neurriak; izan ere, aurreko kapituluan ikusten zen

bezala, pertsona horiek adin txikiagoko taldeek baino neurri handiagoan aurreikusten dute etorkizuneko etxebizitza erostea.

Gipuzkoan bizi diren gazte emantzipatu gabeek gainerako lurraldeetakoek baino gehiago aipatu dute errenta merkeagoko alokairu-erregimena sustatzeko beharra. Bizkaian eta Gipuzkoan ere gehiago aipatu da etxebizitza babestu gehiago eraikitzearen beharra, Araban baino. Bestalde, Araban bizi diren pertsonak gainerakoek baino neurri handiagoan aipatu dituzte etxebizitza erosteko laguntzak edo hutsik dauden etxebizitza zaharrak birgaitzeko laguntzak.

5.1.taula

2021ean EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen iritziz, zeintzuk izango liratekeen etxebizitzaren arazoari aurre egiteko konponbide nagusiak, adinaren eta lurralde historikoaren arabera * (%)


(neurri bakoitza aipatu duten gazteen %)	GUZTIRA	Adina			Lurralde Historikoa		
		18-24 urte	25-29 urte	30-34 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Alokairuan araubidea sustatzea errenta merkeagoekin	48,4	52,2	44,0	48,0	40,1	46,3	55,0
Babestutako etxebizitza gehiago egitea	44,6	46,5	38,6	50,4	29,6	47,1	47,5
Etxebizitza erosteko laguntza gehiago ematea	28,1	26,4	28,6	30,6	34,3	25,9	28,4
Lurraren prezioa merkatzea	18,7	11,6	27,5	19,0	21,6	21,7	13,3
Hutsik dauden pisuak merkatura ateraraztea	15,1	16,9	11,6	17,2	15,6	17,3	11,9
Hipoteka kredituen interes tasak jaistea	10,9	8,9	11,6	13,9	8,2	10,8	12,2
Hutsik dauden etxebizitza zaharrak birgaitzea	4,9	6,5	4,0	3,1	10,4	3,5	4,6
Oro har, etxebizitza gehiago eraikitzea	3,0	1,7	4,7	2,8	2,8	4,1	1,5
Bestelako neurriak	2,4	1,1	3,9	2,4	2,5	3,3	1,0
(n)	560	252	212	96	123	219	218
*Bi erantzun eman ahal ziren							

Bestalde, EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gizonen eta emakumeen arteko alde nagusia da emakumeek gizonak baino gehiago eskatzen dutela errenta merkeagoko alokairu-erregimena sustatzea: emakumeen % 54,8k eta gizonen % 42,9k.

2019tik 2021era, gora egin du, EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko pertsonen artean, etxebizitzaren arazoaren irtenbide nagusia etxebizitza babestu gehiago egitea izango litzatekeela adierazten dutenen ehunekoak. Aitzitik, behera egin du hutsik dauden etxebizitza zaharren birgaitzea aipatzen dutenen ehunekoak.

5.2.grafikoa

Etxebizitzaren arazoaren konponbideei dagokienez, EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen aipamenen bilakaera * (%)



* Bi erantzun eman zitezkeen

Etxebizitza-premia dutenen artean, etxebizitza babestu gehiago eraikitzeak etxebizitzaren arazoa konpontzen lagunduko lukeela aipatzen duten gazteen ehunekoa handitzearen harira, eraikitzen diren etxebizitza babestu gehienak alokairukoak izatearekin duten adostasun-mailari buruz ere galdetu zaie.


EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazte gehienak ados daude (erabat ados edo nahiko ados) eraikitzen diren etxebizitza babestu gehienak alokairukoak izatearekin (% 76,7).

Gainera, etxebizitzaren arazoari irtenbidea emateko hutsik dauden etxebizitzak merkatura ateratzea neurri egokienetako bat dela uste duten gazteen ehunekoaren beherakadari lotuta, hutsik dauden etxebizitzei kanon edo zerga bat ezartzeko iritzari buruz galdetu da. EAEn etxebizitza-premia duten gazte emantzipatu gabeen erdia (% 51,2) ados dago (erabat edo nahiko ados) balizko neurri horrekin. Nolanahi ere, azpimarratu behar da galdetutako bost pertsonatik batek ez dakiela edo ez duela erantzun.

2019tik 2021era igo egin da bi neurriekin erabat ados daudenen ehunekoa.

5.3.grafikoa

EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen artean, babestutako etxebizitza gehienak alokairukoak izatearekin eta hutsik dauden etxebizitzetara kanon bat ezartzearekin adostasun-mailaren bilakaera¹⁹ (%)



Eraikitzen diren etxebizitza babestu gehienak alokairukoak izatearekin adostasuna handiagoa da 25 urtetik beherakoen eta Gipuzkoan bizi direnen artean. Etxebizitza hutsei zerga bat ezartzeko neurriak ere gazteenen taldean lortzen du babes handiena, baina ez dago alde nabarmenik lurralde historikoaren arabera.

5.2.taula

EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen artean, babestutako etxebizitza gehienak alokairukoak izatearekin eta hutsik dauden etxebizitzetara kanon bat ezartzearekin adostasun-maila, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)

(%)	GUZTIRA	Adina			Lurralde Historikoa		
		18-24 urte	25-29 urte	30-34 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
BABESTUTAKO ETXEBIZITZA GEHIENAK ALOKAIRUAN ERAKITZEA							
Erabat ados	48,3	52,0	43,5	48,5	36,9	48,1	53,4
Nahiko ados	28,4	32,8	23,1	28,0	29,1	29,2	27,0
Ez oso ados	10,7	6,7	16,2	10,1	12,8	9,9	11,0
Batere ados ez	5,0	3,9	6,9	4,2	12,3	4,6	2,5
Ez daki edo ez du erantzun nahi	7,6	4,6	10,3	9,3	8,9	8,2	6,2
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZEI KANON (ZERGA) BAT EZARTZEA							
Erabat ados	32,4	36,2	27,6	32,4	31,2	33,8	30,8
Nahiko ados	18,8	19,2	22,5	11,7	16,4	18,8	19,8
Ez oso ados	10,8	10,9	10,8	10,7	10,2	10,5	11,6
Batere ados ez	18,7	18,6	17,6	20,7	22,8	18,2	17,8
Ez daki edo ez du erantzun nahi	19,3	15,0	21,5	24,5	19,5	18,7	20,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
(n)	560	252	212	96	123	219	218

¹⁹ Ezin dira 2015eko eta 2017ko datuak aztertu, urte horietan diru-sarrera propioak dituztenei bakarrik galdetu zitzaielako.


5.2. Etxebide

Etxebideren (Etxebizitza Zerbitzu Publikoa) baliabideari dagokionez, EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen erdiak baino gehiagok (% 54,3) adierazi du zerbitzu hori ezagutzen duela. Beste laurdenek (% 26,0) adierazi dute Etxebideren berri izan dutela, baina ez dutela zuzenean ezagutzen. Eta % 19,8k (hau da, etxebizitza-premia duten bost pertsonatik batek) esan du ez duela Etxebide ezagutzen.

EAEn etxebizitza-premia duten pertsona emantzipatu gabeek Etxebidek eskaintzen dituen baliabideak gutxiago ezagutzen dituzte 2021ean 2015ean edo 2017an baino, baina ehunekoak gora egin du 2019tik 2021era.

5.4.grafikoa

EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeek Etxebideri buruz duten ezagutza-mailaren bilakaera (%)



2021ean, Etxebidek eskaintzen duenari buruzko ezagutzak gora egiten du adinean aurrera egin ahala, bai eta etxebizitza-premia handitzearekin batera ere. Bizkaian gainerako lurraldeetan baino handiagoa da, eta diru-sarrera propioak dituztenen artean ere gainerakoen artean baino handiagoa da.

5.3.taula

EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeek Etxebideri buruz duten ezagutza-maila, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)

(%)	GUZTIRA	Sexua		Adina			Lurralde Historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	18-24 urte	25-29 urte	30-34 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Etxebide ezagutzen du	54,3	56,4	52,4	48,2	58,9	59,3	41,8	58,9	53,1
Etxebideri buruz hitz egiten entzun du, baina ez du zuzenean ezagutzen	26,0	25,4	26,4	25,1	25,7	28,2	36,5	21,3	27,9
Ez du ezagutzen	19,8	18,2	21,2	26,7	15,4	12,5	21,7	19,8	18,9
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	560	255	305	252	212	96	123	219	218

5.4.taula

EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeek Etxebideri buruz duten ezagutza-maila, diru-sarrera propioak izatearen, premia-mailaren eta premiarekin daramaten denboraren arabera (%)

(%)	GUZTIRA	Diru-sarrera propioak		Etxebizitza premiaren maila			Etxebizitza-premiarekin emandako denbora		
		Bai	Ez	Handia	Nahikoa	Ertaina edo txikia	< 1 urte	1-2 urte	> 2 urte
Etxebide ezagutzen du	54,3	59,8	45,2	59,9	54,7	50,0	46,9	61,6	55,5
Etxebideri buruz hitz egiten entzun du, baina ez du zuzenean ezagutzen	26,0	27,0	24,3	25,5	25,0	27,0	29,7	23,2	24,3
Ez du ezagutzen	19,8	13,2	30,4	14,7	20,3	23,0	23,4	15,2	20,2
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	560	356	204	152	173	235	210	184	166

6. EMAITZA ESANGURATSUENAK

Datuen oinarria 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen 2021eko Etxebizitza Beharrei eta Eskaerari buruzko Inkestan emandako erantzunak dira. Inkesta hori bi urtean behin egiten du Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estatistika Organo Espezifikoa, eta Gazteen Euskal Behatokiari 18-34 urteko gazteei dagokien datu-basea eman dio, azter dezan. Hauek dira azterketatik ateratako emaitzarik nabarmenenak:

EMANTZIPATUTAKO GAZTEEI DAGOKIENEZ,

- ✓ 2021ean, 18 eta 34 urte bitarteko gazteen herena baino zertxobait gehiago emantzipatuta dago (% 35), eta emantzipazioa ez da gehienen egoera, 30-34 urtekoen taldean izan ezik. Nolanahi ere, emakume gazteek gizon gazteek baino emantzipazio-zifra handiagoak dituzte. Atzerriko nazionalitatea duten gazteen artean, aldiz, gehienak beren kabuz bizi dira.
- ✓ Emantzipatzen diren gazte gehienak (% 61,6) bikotekidearekin emantzipatzen dira. 30 urtetik aurrera, gora egiten du bikotekideekin bizi diren gazteen ehunekoak, eta behera egiten du lagunekin etxebizitza partekatzen dutenak.
- ✓ Gehiago dira beren jabetzako etxebizitza batean (erabat ordainduta, hipotekarekin edo herentzian edo dohaintzan hartuta) bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuak alokairuan bizi direnak baino: % 51,6 eta % 42,1, hurrenez hurren. Beste % 6,3 aldi baterako laga dioten etxebizitza batean bizi da. 30 urte bete aurretik, aldiz, gehiago dira alokairuan emantzipatutako gazteak, beren jabetzako etxebizitza batean bizi direnak baino.
- ✓ Nolanahi ere, alokairuan bizi diren gehienek aitortu dute horrela bizi direla erosi ahal izateko diru-sarrerak nahikoak eta/edo egonkorak ez dituztelako. Eta alokairuan bizitzearekin pozik ez egoteak gora egin du azken urteotan (izan ere, 2021ean, alokairuan bizi diren gazteen erdiak baino gehiagok, zehazki % 54,9k, diote egoera horrekin ez daudela oso pozik edo batere pozik). Hori ez da harritzekoa, azken urteetan alokatutako etxebizitza batean emantzipatutako gazteek ordaintzen dituzten batez besteko errenten hazkundera kontuan hartuta.
- ✓ Alokairuan bizi diren gazteen hileko batez besteko errenta 641 eurokoa da 2021ean. Batez besteko hori igo egin da aurreko urteekin alderatuta, baina, hala ere, Euskadiko etxebizitza libreen batez besteko alokairu-errenta baino txikiagoa da (710 eurokoa da batez besteko errenta librea Euskadin urte horretan, AME Alokairu Merkatuaren Estatistikaren arabera). Nolanahi ere, alokairuan emantzipatutako gazteek hilerik ordaintzen duten batez besteko errenta hori, 2021ean, hipotekadun jabetzako etxebizitza batean emantzipatutako gazteek hilean ordaintzen duten batez besteko hipoteka-kuota (515 euro) baino 125 euro garestiagoa da.
- ✓ Kontuan hartzen badugu, batetik, alokairuan bizi diren pertsonen familia-diru-sarrerak, batez beste, jabetzako etxebizitza batean bizi direnenak baino txikiagoak direla, eta, bestetik, alokairu-errenten batez besteko zenbatekoak hipoteka-kuotei dagozkienak baino handiagoak direla, ondorioztatzen da alokairuko etxebizitzetan bizi diren gazteek ahalegin ekonomiko handiagoa egin behar dutela etxebizitzako hileko gastuei aurre egiteko.
- ✓ Emantzipatutako gazteen etxebizitzak batez ere bigarren eskuko etxebizitzak dira, 80 metro koadroko batez besteko tamainarekin. Gehienetan igogailua dute, baina erdiak baino

gutxiago dira trastelekua duten etxebizitzak, eta hirutik batek bakarrik du garajea. Erositako etxebizitzek, oro har, alokatutako etxebizitzek baino prestazio gehiago dituzte.

- ✓ Etxebizitza babestu batean bizi diren gazte emantzipatuen ehunekoa % 12,6 da, lurraldeen artean alde handiak dauden arren; izan ere, Araban ehunekoa % 22,7ra igotzen da, eta hori logikoa da, lurralde horretan etxebizitza babestuen bolumen handiagoa baitago.
- ✓ Emantzipatutako gazte gehienak pozik daude beren etxebizitzarekin, eta are gehiago beren ingurunearekin edo auzoarekin. Edozelan ere, gehienek auzoan arazoren bat dagoela salatzen dute, batez ere aparkalekurik ez dagoela.

EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEI DAGOKIENEZ,

- ✓ Bestalde, emantzipatu gabeko pertsonen % 38,3k adierazi du etxebizitza bat beharko lukeela. Adinak gora egin ahala, etxebizitza-premiak ere gora egiten du, % 51,1era iristen baita emantzipatu gabeko 30-34 urteko pertsonen artean. Pertsona horien % 95ek baino gehiagok etxebizitza hori Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) egotea beharko lukete. Zifra absolutuetan, 2021ean, 18 eta 34 urte bitarteko 84.000 pertsona emantzipatu gabe daude EAEn etxebizitza behar dutela baieztatzen dutenak (2019an 73.000 ziren).
- ✓ Etxebizitza behar dutela dioten gazteen kopurua handitzeaz gain, EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko pertsonen artean, 2019tik 2021era handitu egin da premia handia dutela dioten bolumena (% 18,0tik % 28,8ra), bai eta premia horrekin bi urte baino gehiago daramatzatela dioten kopurua ere (% 24,9tik % 31,0ra).
- ✓ Beren lehentasunei dagokienez, Euskadin etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen % 60,8k adierazi dute gustatuko litzaiekeela etorkizuneko etxebizitza hori beren udalerrian egotea, eta, aukera ekonomikoak kontuan hartuta, erosteko asmoa duten pertsonak (% 33,6) eta alokatzeko dutenak (% 32,0) ia hainbeste dira. Beste aukera bat erosteko aukerarekin alokatzea litzateke eta hori egitea aurreikusten dute % 16,5ek. Gainerako % 17,9ri berdin litzaioke etorkizuneko etxebizitzaren edukitze-erregimena. Adinean aurrera egin ahala, erosteko asmoak ere gora egiten du.
- ✓ Etxebizitza-premia duten EAEko gazte emantzipatu gabeen heren batek baino gehiagok bi urteko epean emantzipatzea aurreikusten du (% 36,9). Diru-sarrerak erabakigarriak dira bi urteko epean emantzipatzeko aurreikuspenetan, baina Euskadin etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko pertsona guztien % 16,2k soilik adierazi du diru-sarrera egonkor eta nahikoak dituela pauso hori emateko (ehuneko hori 6,6 puntu jaitsi da 2019tik 2021era).
- ✓ Etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituztenek (diru-sarrera horiek nahikoak eta/edo egonkorak diren alde batera utzita) diote, batez beste, hilean 446 euro erabil litzaketela alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzeko, aurreko urteetan baino diru gutxiago. Etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten hamar pertsonatik batek (% 11,3) soilik adierazi du, 2021ean, hilean 600 euro baino gehiago bideratu ditzakeela etxebizitza ordaintzera.
- ✓ Hala ere, eskuragarritasun ekonomikoa dezente txikiagoa da alokatzeko asmoa dutenen artean erosteko asmoa dutenen artean baino (izan ere, hori da alokairua aukeratzeko arrazoietako bat). Alokatzera aurreikusten duten pertsonak diote, batez beste, 402 euro erabil litzaketela alokairua hileroko ordaintzeko, eta kopuru hori urrun dago Euskadiko merkatu libreko batez besteko alokairu-errentetatik (710 euro 2021ean).

- ✓ Erostea aurreikusten dutenen artean, etxebizitzarako hileko eskuragarritasun ekonomikoa handiagoa da (500 euro), baina, hala ere, ez da nahikoa hipoteka-kuotaren ordainketari bakarrik ekiteko; izan ere, 2021ean, batez beste, 659 eurokoa dela kalkulatu baita. Gainera, pertsona horiek diote gehienez 181.000 euroko prezioa duen etxebizitza eros lezaketela. Eta Euskadin bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko prezioa (hasiera batean berria baino eskuragarriagoa) 244.000 euro ingurukoa da, hau da, ordain lezaketena baino 60.000 euro inguru garestiagoa.
- ✓ Etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten gazte emantzipatu gabe gehienek uste dute etxebizitza gutxi daudela beren beharretara eta aukera ekonomikoetara egokitzen direnak.
- ✓ Etxebizitzaren arazoa konpontzeko har litezkeen neurrien zerrenda baten aurrean, etxebizitza-premia duten gazte emantzipatu gabeek gehien babesten dituzten bi neurriak (% 40tik gorako aipamen-ehunekoekin) errenta merkeagoko alokairu-erregimena sustatzea eta etxebizitza babestu gehiago egitea dira. Gainera, pertsona horietako gehienak ados daude eraikitzen diren etxebizitza babestu gehienak alokairukoak izatearekin. Eta erdiek ere adierazi dute ados daudela hutsik dauden etxebizitzetzi kanona edo zerga ezartzearekin.
- ✓ Gazteenak, baliabide ekonomiko gutxien dituztenak, eta Gipuzkoako gazteak, etxebizitzaren merkatu libre garestiena dutenak, dira etorkizuneko etxebizitza alokatzea gehien aurreikusten duten kolektiboak, eta, era berean, gehien eskatzen dutenak alokairu-erregimena sustatzea errenta merkeagoekin eta etxebizitza babestu gehienak alokairukoak izatea.
- ✓ Azkenik, EAEn etxebizitza-premia duten bost pertsona emantzipatu gabetik batek ez du ezagutzen Etxebide, Etxebizitza Zerbitzu Publikoa (% 19,8).

ONDORIOAK

30 urte bete aurretik emantzipazioa urria da, eta ordutik aurrera ere zaila da ondoko baldintzak betetzen ez badira: lan egonkorra izatea eta goranzko joera duen higiezinaren merkatutik eratorritako gastuei aurre egiteko moduko soldata izatea.

Euskadiko gazteek emantzipazio tradizionalan pentsatzen jarraitzen dute: jabetzako etxebizitzan eta bikotekidearekin. Oro har, alokairuan bizi diren pertsonak urte askotarako hipoteka-mailegu bat ordaintzeko baliabide ekonomiko eta/edo laneko egonkortasun gutxien dutenak dira, hau da, erosteko aukera gutxien dituztenak; batez ere, 30 urtetik beherako gazteak eta atzerriko nazionalitatea dutenak izaten dira.

Alokairua, ustez, baliabide gutxien dituzten pertsonak emantzipatzeko irtenbidea zen, eta, izan ere, horrela izan ohi da (obligazioagatik, desioz baino gehiago), baina 2021ean hipoteka-kreditu bat ordaintzea baino garestiagoa da. Nolanahi ere, ikusteko dago hurrengo urteetan alokairuko errentek eta interes-tasek zer bilakaera izango duten.

Alokairuan bizitzearekin duten gogobetetasuna nabarmen jaitsi da azken urteotan, eta hori logikoa da alokairuko errenten prezioen goranzko bilakaera ikusita.

2019tik 2021era (Covid19aren pandemia tarteko) gazte emantzipatuen kopuruak behera egin du, eta, ondorioz, Euskadin etxebizitza behar dutela dioten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen kopuruak gora egin du.

Etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko pertsona gehienek ez dute baliabide ekonomiko nahikorik etxebizitzaren merkatu libreko prezioei aurre egiteko. Gainera, prezio horiek igotzen ari dira, eta haien eskuragarritasun ekonomikoa, aldiz, jaisten ari da. Beraz, bi aukera dituzte: familiaren etxean jarraitzea eta aurrezten saiatzea edo beste pertsona batzuekin emantzipatzea gastuak partekatzeke.

Emantzipatu ahal izateko etxebizitza bat behar duten pertsona horiek alokairuko errenta eskuragarriagoak eta etxebizitza babestu gehiago eskatzen dituzte, eta etxebizitza babestu horiek alokairukoak izatea onartuko lukete. Beraz, beharrezkoa da esku-hartze publikoa horrelako etxebizitzak eraikitzeke edo alokairuaren merkatua arautzeko.